



ERABAKIA, 2024ko APIRILaren 17koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, DOKTOREGO IKASKETETAKO ERASMUS+ MUGIKORTASUN LUZEAK PROGRAMARI ATXIKI GABEKO HERRIALDEETAN EGITEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEKO DENA (2022 ETA 2023 PROIEKTUEN 2. DEIALDIA)

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren deialdi honek prozedura bat ezartzen du Erasmus+ programaren barruan programari atxiki gabeko herrialdeetan egonaldi luze bat egingo duten doktorego ikasleak hautatzeko.

Kasu honetan, 2022 eta 2023 proiektuen baitan, helburua da UPV/EHUko doktoregaiak hautatzea egonaldi luzeak egiteko Kanadan.

Plaza onartzeak berekin dakar kasuan kasuko dirulaguntzak jasotzea eta Erasmus+ programaren mugikortasun luzeetarako baldintzak betetzea, aintzat harturik Europako Batzordeak Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren (SEPIE) bitartez ezarritako jarraibideak.

Kontuan izanik nahikoa kreditu dagoela Erasmus+ KA171 2022, KA171 2023, KA131 2022-Nazioartekoa eta KA131 2023-Nazioartekoa proiektuei loturiko dirulaguntza kontratuen Europako funtsetan, eta nire eskumenen baitan,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Onartzea eta argitaratzea UPV/EHUko doktoregoko ikasleek ondoren aipatzen diren programari atxiki gabeko herrialdeetan mugikortasun luzeak egiteko Erasmus+ deialdiaren oinarriak: Kanada.

Honako hau bigarren deialdia da KA171 eta KA131-Nazioartekoa 2022 eta 2023 proiektuen kasuan.

Bigarrena: Adjudikatuko den plaza kopurua aurrekontuaren arabera izango da.

Hirugarrena: Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazio auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, aintzat harturik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea. Hala ere, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioko erabakia eman duen organoari berari, hilabeteko epean, kontuan harturik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua.

AURKIBIDEA

1.	Deialdiaren xedea	3
2.	Baldintzak.....	3
2.1.	Ikasleek bete beharreko baldintzak	3
2.2.	Aurreikusitako jarduera	3
2.3.	Egonaldiaren iraupena eta aldia	4
2.4.	Egonaldia luzatzea	4
2.5.	Helmugak.....	4
3.	Finantzaketa	5
3.1.	Europako erkidegoko funtsen bidez	5
4.	Eskaera egiteko modua	6
4.1.	Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa.....	6
4.2.	Eskaerak aurkezteko epea eta modua	6
4.3.	Eskaera zuzentzea eta hobetzea	7
5.	Hautapen prozedura	8
5.1	Hautapen irizpideak.....	8
5.2	Erabakiak.....	8
5.3	Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda.....	8
5.4	Egutegia.....	9
6.	Mugikortasun ikasleen betebeharrak	9
6.1	Eskubideak eta betebeharrak.....	9
6.2	Helmuga unibertsitatearen onespena.....	9
6.3	Akordio akademikoa (Learning Agreement)	10
6.4	Errendimendu akademikoa	10
6.5	Egonaldia	10
7.	Parte hartzeko konpromisoak.....	11
7.1.	Egonaldiaren aurretik.....	12
7.2.	Egonaldian zehar	12
7.3.	Egonaldia amaitzean	12
8.	Dirulaguntza ordaintzea	13
9.	Ez-betetzeak eta itzulketak.....	13
	Eranskinen zerrenda	15

OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da UPV/EHUko doktoregoko ikasleak hautatzea Erasmus+ mugikortasun luzeak egiteko 2024-25 ikasturtean programari atxiki gabeko herrialde hauetan: Kanada.

Helburua da sustatzea enplegarritasuna, gizarteratzea, konpromiso zibikoa, berrikuntza eta ingurumen jasagarritasuna, Europan bertan nahiz Europatik kanpo, doktoregaiek aukera izan dezaten atzerrian ikasteko beren ikasketa prozesuaren parte gisa.

Honako hauek dira Erasmus+ programaren baitan zehaztutako ekintzen helburuak:

- Doktoregaiei azaltzea hainbat ikuspuntu, ezagutza eta irakasteko metodo, beren ikasketa arloaren barruan, Europako zein nazioarteko testuinguruan.
- Haien zeharkako gaitasunak garatzea; hala nola komunikazioa, hizkuntza, pentsamendu kritikoa, arazoen ebazpena, kulturartekotasuna.
- Etorkizuneko gaitasunak garatzea (gaitasun digital eta ekologikoak, besteak beste), gaurko nahiz biharko erronkei aurre egiteko.
- Garapen pertsonala bultzatzea; hala nola egoera berrietara egokitzeko gaitasuna edo norberaren gaineko konfiantza.

2. Baldintzak

2.1. Ikasleek bete beharreko baldintzak

2.1.1. I. eranskinean aipatutako UPV/EHUren doktorego programaren batean matrikulatuta egotea **mugikortasuna eskatzeko unean eta egonaldia egin bitartean**.

2.1.2. **Gutxieneko hizkuntza ezagutza** egiaztatzea, helmuga erakundearen eskakizunen arabera.

2.1.3. Europako Batasuneko herrialde bateko herritartasuna izatea, edo bizi den herrialdean errefuxiatu, herrigabe, egoiliar iraunkor edo aldi baterako egoiliar gisa aitortua izatea, mugikortasunak dirauen artean bizileku baimena indarrean izanik, kasuan kasuko estatuko legeriaren arabera.

UPV/EHUren nazioarteko mugikortasun araudiaren arabera, kanpotik etorritako ikasleek ezin izango dute parte hartu deialdian, halakotzat harturik araudi horren 3.9 eta 8.4 artikuluetan zehaztutakoak.

2.2. Aurreikusitako jarduera

Ikasleek atzerrian egingo dituzte ikasketak, Erasmus+ programari atxikitako goi mailako hezkuntzako erakunde batean.

Egonaldia Erasmus+ programaren mugikortasun gisa zenbatuko da, programaren denbora eta finantza mugak errespetatzeari begira (gehienez 12 hilabete ikasketa ziklo bakoitzeko).

2.3. Egonaldiaren iraupena eta aldia

2.3.1. Mugikortasun fisikoa has daiteke 2024ko irailaren 1etik aurrera, eta 2025eko uztailaren 31 baino lehen amaituko da.

Zehazki, interesdunari plaza adjudikatzen dion azken erabakia argitaratu eta gero hasiko da.

2.3.2. Deialdi honetan adjudikatutako mugikortasun fisikoa 3-4 hilabetekoa izango da, 1. eranskinean ezarritakoaren arabera. Erasmus+ programak ezarritako gutxienezko iraupena bete ezean (2 hilabete), mugikortasuna baliogabetu eta itzuli egin beharko dira jasotako Erasmus+ laguntzak.

2.3.3 Aldi baterako bizileku baimena duten edo ikasketengatiko egonaldian dauden atzerriko doktoregoko ikasleek beren baimenak berritzeko erantzukizuna izango dute UPV/EHU ikasi bitartean.

2.3.4. Egonaldiaren iraupena bat etorriko da doktoregoaren Batzorde Akademikoak eta Akordio Akademikoak (*Learning Agreement*) ezarritakoarekin.

2.4. Egonaldia luzatzea

Egonaldia luzatzea soil-soilik eska daiteke ikaslea helmuga unibertsitatean dagoenean. Egonaldia luzatzeko, koordinatzailearen baimena beharko da (jatorri eta helmuga erakundea).

Egonaldia luzatu ahal izango da baldin eta (i) dagozkion aldaketak egiten badira Akordio Akademikoan (*Learning Agreement*), eta (ii) osasun aseguru gehigarriaren indarraldia luzatzearen kopia aurkezten bada.

Egonaldiaren luzapena ez da izango automatikoa, **eta ez du per se ekarriko luzapeneko hilabetei dagokien finantza laguntza jasotzeko eskubiderik.**

2.5. Helmugak

Deialdi honen helmugak 1. eranskinean jasotakoak dira (deialdia argitaratzeko unean indarrean dute dagokion erakunde arteko Erasmus+ akordioa). Eskatzaileak helmuga horiei buruzko informazioa eska dezake Doktorego Eskolan.

Egonaldiak iraun bitartean, indarrean egon behar du UPV/EHUren eta atzerriko goimailako hezkuntza erakundearen arteko Erasmus+ hitzarmenak. Indarreko hitzarmenik ez badago helmuga unibertsitatearekin, beste hitzarmen bat sinatzeko ahalegina egin ahal izango da. Helmuga erakundeak eta UPV/EHUK sinatu beharko dute hitzarmena, egonaldia hasi aurretik. Hitzarmenik sinatzen ez bada, bertan behera geratuko da mugikortasuna.

3. Finantzaketa

3.1. Europako erkidegoko funtsen bidez

Erasmus+ programan mugikortasun plaza bat adjudikatzeak berekin dakar SEPIEren dirulaguntza jasotzea. Dirulaguntza jasotzeko, dagokion dirulaguntza hitzarmena sinatu beharko du ikasleak mugikortasuna hasi aurretik.

Deialdi honen dirulaguntzak kalkulatu dira SEPIEren finantzaketa arauen arabera.

Egonaldia egingo duten doktoregaiak Europako dirulaguntza bat jasoko dute atzerrian egon bitartean izango dituzten bidaia eta mantenu gastuetarako. Laguntza hori bi kontzeptutan zatitzen da:

- a) **Bidaia laguntza** kopuru bakar bat da eta kalkulatu da lantokiaren eta dagokion jarduera egingo den lekuaren arteko distantziaren arabera, EACEAk horretarako sortutako tresna informatikoaren bidez: <https://erasmus-plus.ec.europa.eu/resources-and-tools/distance-calculator>

Bidaia distantzia	Kopurua (parte hartzaile bakoitzeko)
2.000-2.999 km	360€
3.000-3.999 km	530€
4.000-7.999 km	820€
8.000 km edo gehiago	1.500 €

- b) **Mantenu laguntza** EBren laguntza indibidual bat da: 23,33 €/egun (700 €/hilabete).

Mantenu laguntza kontzeptu gisa emandako zenbatekoa kalkulatzeko, biderkatu egin behar dira goian aipatutako kopurua (SEPIEk jakinarazia) eta hitzarmenean sinatutako hilabete eta egun kopurua.

Kontuan hartuko dira CERTIFICATE OF ATTENDANCE ziurtagiriaren datak egonaldian benetan emandako hilabeteak eta egunak egiaztatzeko. Hala badagokio, Nazioarteko Harremanen Bulegoak ikasleari eskatuko dio itzultzeko egiaztatu gabeko denboragatik jasotako dirua. Egonaldiaren luzapenei dagokien finantzaketa ez dago ziurtatuta, eta aurrekontuaren arabera izango da.

SEPIEk prozedura bat zehaztuko du dirulaguntza gehigarriak emateko desgaitasun bat edo beste baldintza fisiko eta mental batzuk dituzten pertsonen, eta laguntza orokorrak baino handiagoak izan ahalko dira. Ikus deialdiaren 2.2 puntua.

4. Eskaera egiteko modua

4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa

Eskaera egiteko, erabaki honekin batera web orrian argitaratuko den eredu normalizatua erabiliko da.

Hutsak eta akatsak zuzentzeko epea igarota, ez dira aintzat hartuko osagabe jarraitzen duten eskaerak.

Eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

1. Eskaera inprimakia (2. eranskina)
2. Doktorego tesiaren zuzendariak sinatutako azalpen txostena (2. eranskinean jasota).
3. NAN edo AIT kopia. Europar Batasuneko beste herrialde bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartzen duen estatu bateko herritartasuna duten pertsonak pasaportea aurkeztu beharko dute, edo jabearen nazionalitatea agertzen duen tokian tokiko nortasun agiri baliokidea. Gainerako herrialdeetako pertsonak, Atzerritarren Identifikazio Txartela (AIT) aurkeztuko dute.
4. Laguntza kobratu nahi den aurrezki libretaren edo banku kontuaren titulartasun datuen kopia (**IBANa BARNE**). Nahitaez, laguntza eskatu duen pertsonak izan beharko du aurrezki libretaren edo banku kontuaren titularra.
5. Hizkuntzen ezagutza egiaztatzen duten ziurtagiri ofizialen kopia.
6. Doktoregorako bidea ireki duen titulazioko espediente akademikoaren kopia.
7. Doktoregoan matrikulatu izanaren frogagiria.
8. Motibazio-gutuna
9. Curriculum Vitae

4.2. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da 2024ko apirilaren 26 arte (egun hori barne).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua araberak, eskaera egingo da:

- Ahal dela, **UPV/EHUren erregistro elektronikoen bidez** (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>), eskaeraren izenburu gisa jarri "Erasmus+ Doktorego Deialdia 23/24", eta jasotzailearen atalean aukeraturik: **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza → Nazioarteko Harremanen Bulegoa (U02000247)** Horretarako, identifikazio elektronikoko sistemaren bat erabiliko da: a) Izenperen Erabiltzaile Ziurtagiri Digitala, b) UPV/EHUren Unibertsitate

- Txartela (Izenpe), c) NAN elektronikoa edo d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).
- Gainera, eskaera aurkeztu ahal izango da: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan, b) UPV/EHUko edo sektore publikoko beste edozein erakundetako erregistro arloko laguntza bulegoetan, gaitutako funtzionario publiko baten bidez, c) Correosen bulegoetan, eta d) Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo kontsuletxeetako bulegoetan.

Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkeztu diren eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko berariazko adostasuna adierazi ondoren; guztia bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, zeinaren bidez onartzen baitira gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Eskaera Correosen bulego batean aurkeztuz gero, helbide hau jarriko da:

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Gipuzkoako Campuseko Nazioarteko Harremanen Bulegoa
(Doktoregaiantzako Erasmus+ KA171 Mugikortasun Deialdia)
Ignacio M^a Barriola Zentroa
Elhuyar plaza, 1
20018 Donostia

4.3. Eskaera zuzentzea eta hobetzea

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak edo aplikatu beharreko legeria espezifikoan ezarritako beste batzuk, hamar egun baldioduneko epea emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko. Hori egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta dagokion erabakia hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan.

Akatsak zuzentzeko eskatzen zaien pertsonak erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuko dute eskatutako dokumentazioa, aurretik adierazitako moduan.

5. Hautapen prozedura

5.1 Hautapen irizpideak

Onartutako eskaerak batzorde batek ebaluatuko ditu. Batzordekideak izango dira: Nazioarteko Mugikortasunaren arloko zuzendaria, Nazioarteko Harremanen Zerbitzuko burua eta Doktorego Eskolako Nazioartekotze Batzordeko kide bat.

Soilik ebaluatuko dira behar bezala aurkeztutako eskaerak, betiere egokiak badira eta deialdian jasotako helburuak badituzte.

Eskaera kopurua gehiegizkoa bada deialdiaren funtsetarako, irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- Nazioarteko mugikortasun programa batean inoiz parte hartu ez duten pertsonen lehentasuna izango dute bigarren egonaldi bat eskatzen dutenen aurrean.
- Lehentasun hori ezarrita, **merezimendu akademikoa** izango da hautapenaren oinarria. Beraz, deialdi honen hautapena egitean, kontuan izango da hautagai bakoitzak doktoregora sartzeko aurkeztu duen titulazioaren batez besteko nota.
- Kontuan izango dira ere elementu hauek: eskariarekin batera aurkeztutako **azalpen memoria** eta jarduera egiteko erabiliko den **hizkuntzaren jakite mailaren ziurtagiria**.

5.2 Erabakiak

Nazioarteko Harremanen Batzordeak mugikortasunak adjudikatzeko proposamen bat egingo dio Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeari, behin eskaerak baloratuta, hautatuak izateko baldintzak betetzen direla eta eskatutako modalitaterako funtsak badaudela egiaztatu ondoren.

Segidan, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, aintzat harturik aurretik aipatutako batzordeak eginiko hautaketa, behin-behineko zerrenda argitaratzea aginduko du, onartutakoena, baztertutakoena eta erreserban gelditu direnena, Nazioarteko Harremanen web orrian. Gainera, banan-banan jakinaraziko zaie erabakia interesdunei, eskaeran adierazitako helbide elektronikoaren bidez.

Deialdi honetako mugikortasunak onartzeko edo ukatzeko erabakiaren aurka, dagozkion errekurtsioak jarri ahal izango dira, indarrean dagoen legeriaren arabera.

5.3 Onartzea edo uko egitea, eta erreserba zerrenda

Azken erabakia argitaratuta, 10 egun baliodun izango ditu interesdunak mugikortasuna onartu edo uko egiteko, **UPV/EHUren erregistro elektronikoan** aurkeztutako inprimaki bidez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>),

eskaeraren izenburu gisa jarririk "Erasmus+ Doktorego Deialdia 23/24", eta jasotzailearen atalean aukeraturik: **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza → Nazioarteko Harremanen Bulegoa (U02000247)**

Behin betiko zerrendak argitaratuko dira Nazioarteko Harremanen webgunean, eta posta elektronikoz helaraziko zaizkie deialdian parte hartzen duten unibertsitateei.

Hautatu ez diren pertsonen erreserba zerrenda argitaratu egingo da Nazioarteko Harremanen webgunean eta, uko egiteren bat gertatuko balitz, mezu elektronikoko bat bidaliko zaie, aintzat harturik zerrendaren hurrenkera.

5.4 Egutegia

1. Eskaerak aurkezteko epearen hasiera	2024ko apirilak 17
2. Eskaerak aurkezteko epearen amaiera	2024ko apirilak 26
3. Eskaeren behin-behineko zerrendak argitaratzea eta eskaerak zuzentzeko epearen hasiera	2024ko apirilak 29
4. Hautapen prozesuan sartuko diren eskaeren behin betiko zerrenda argitaratzea	2024ko maiatzak 15
5. Onartutako, baztertutako eta erreserban gelditzen diren pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratzea, eta emandako laguntza onartzeko edo uko egiteko epearen hasiera	2024ko maiatzak 20
6. Hautatutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzea Behin betiko erreserba zerrenda argitaratzea	2024ko ekainak 5

6. Mugikortasun ikasleen betebeharrak

6.1 Eskubideak eta betebeharrak

ERASMUS+ mugikortasun beka baten onuradunen eskubideak eta betebeharrak jasota daude "ERASMUS ikasle gutunean", UPV/EHUren mugikortasun arautegian eta helmuga unibertsitatearen arautegian.

6.2 Helmuga unibertsitatearen onespina

UPV/EHUK mugikortasun plaza bat adjudikatzeak **EZ du esan nahi helmuga unibertsitateak ikaslea automatikoki onartu behar duenik.**

Atzerriko unibertsitatean onartua izateko gestio lana doktoregaiaren erantzukizuna izango da. Unibertsitate bakoitzak onarpen eskubideak aurkezteko (kasu batzuetan online) ezarritako epea bete behar da, unibertsitate askok ez dutelako onartzen epezu kanpo bidalitako eskaririk.

Doktoregaien erantzukizuna izango da harrera herrialdean sartzeko eta bertan legearen arabera egoteko behar diren baimenak edo agiriak lortzea (bisak, egoitza txartelak, etab.), eta, hala badagokio, berritzea, trukeak iraun bitartean.

Halaber, haien ardura izango da alojamenduaren gestioaz arduratzea, atzerriko unibertsitatean egon bitartean, bai eta harrera herrialdeak eta unibertsitateak ezarritako beste edozein baldintza betetzea ere. Hala, unibertsitate batzuek nahitaezko baldintza dute unibertsitateak berak edo gobernuak eskaintako osasun aseguru bat kontratatzea. Aseguru horiek kontratatzeak ez du salbuesten beste aseguru bat kontratatzeko betebeharretik, gutxienez jasoko dituen gaixotasunagatiko edo istripuagatiko, aberriratzeagatiko eta osasun lekualdaketagatiko osasun laguntzaren estaldura, salbu eta helmugan kontratatutako aseguruak estaldura horiek jasotzen baditu.

Era berean, pandemiak eragindako osasun egoera dela-eta, ezinbestekoa da kontratatutako aseguruak COVID-19 osasun estaldura izatea, eta gomendatzen da hura bertan behera uztea aurreikusten duen bidaia aseguru bat kontratatzea.

Doktoregaiak ez badu lortzen helmuga unibertsitateak onar dezan, Nazioarteko Harremanen Bulegoak eta Doktorego Eskolako koordinatzaileak horren arrazoiak aztertuko dituzte, eta saiatuko dira libre dagoen beste helmuga bat adjudikatzen.

Ikasleak ez du tasarik ordainduko helmuga unibertsitatean, jatorri unibertsitatean ordaintzen dituelako. Hala ere, atzerriko unibertsitateak diru kopuru txiki batzuk eskatu ahal izango dizkio, hainbat gastutarako: ikasle sindikatuen afiliazioa, materialen erabilera (fotokopiagailuak, laborategiko produktuak, etab.) eta beste hainbat jarduera (bertako doktoregaiei ezarritako baldintza berberetan).

6.3 Akordio akademikoa (*Learning Agreement*)

Helburu unibertsitatean onarpen eskaera tramitatu bitartean, edo ondoren (helburu unibertsitateak ezarritako prozeduren arabera), *Learning Agreement* bat egin behar da tesiaren zuzendariarekin. Akordio horretan jasoko dira, helburu unibertsitatean egingo diren jarduerak ez ezik, UPV/EHUko zer jardueren bidez baliozkotuko diren, eta bi unibertsitateek sinatuko dute, loteslea izan dadin.

6.4 Errendimendu akademikoa

Ikasketa errendimendu egoki bat akreditatu beharko da helmuga unibertsitatean.

6.5 Egonaldia

6.5.1. Adostutako datan hasi beharko da atzerriko unibertsitateko egonaldia; bestela, mugikortasuna bertan behera utzi dela ulertuko da. Hori gertatuko balitz, berehala emango zaie horren berri Nazioarteko Harremanen Bulegoari eta

Doktorego Eskolako koordinatzaileari, eta hori egiten ez bada, baztertu egingo da ikaslea UPV/EHUren mugikortasun programen hurrengo deialditik.

Egonaldiaren datak edo mugikortasuna egiteko lauhilekoa aldatzea eskatzen bada, eta horrek eskainitako iraupena aldatzen badu, Nazioarteko Harremanen Bulegoak eta Doktorego Eskolako koordinatzaileak horren arrazoiak aztertuko dituzte, oniritzia eman edo ez erabakitzeko. Oniritzirik gabe aurrera eginez gero, 9. atalean aipatutakoa aplikatuko zaio doktoregaiari.

6.5.2. Behin mugikortasuna hasita, doktoregaiak bertan behera uzten badu egonaldia bere borondatez, horren berri emango zaie Nazioarteko Harremanen Bulegoari eta Doktorego Eskolako koordinatzaileari, posta elektronikoz (pc.international@ehu.eus, movilidad.internacional@ehu.eus eta international.doke@ehu.eus), haren egoera erregularizatzeko.

Egonaldia eteten bada horren berri eman gabe, jaso dituen laguntzak erreklamatuko zaizkio doktoregaiari. Mugikortasuna baimenik gabe bertan behera utzi duten ikasleek jasotako laguntzak itzuli beharko dituzte.

6.5.3. Egonalditik aldez aurretik itzuliz gero, horren arrazoiak azaldu beharko ditu ikasleak. Nazioarteko Harremanen Bulegoak eta Doktorego Eskolako mugikortasunak uztearen arrazoiak aztertuko dute.

Hori horrela, salbuesteko kausa larritzat hartuko dira soil-soilik ikaslearen istripua edo gaixotasuna, edo haren odol ahaidetasunezko senideena (zuzeneko bidean, lehen mailakoak, edo albo bidean, bigarren mailara arte), edo legez eraturako bikotekideena (ezkontza, izatezko bikotea, frogatutako bizikidetza, edo errektoreordetzaren iritziz bizikidetza behar bezala frogatzen duen beste moduren bat). Egoera horiek egiaztatzeko, zuzenbidean oinarritutako frogabideak aurkeztu beharko dira. Alegazioak onartzen ez badira, eta zuzenbidean jar daitezkeen errekursoei kalterik egin gabe, ikasleak ezin izango du parte hartu nazioarteko mugikortasun programetan hurrengo ikasturtean.

6.5.4. Mugikortasuna hasi edo amaitzen denetik **HILABETEKO** epean, kasuaren arabera, egonaldia bera eta haren iraupena egiaztatu beharko dira, helmuga unibertsitateak behar bezala sinatu eta zigilatutako ziurtagiri originalen bidez – egonaldiaren hasierako ziurtagiria (*Certificate of Arrival*) eta egonaldiaren amaierako ziurtagiria (*Certificate of Attendance*)–. Ziurtagirietatik ondorioztatzen bada mugikortasunaren iraupena jasotako hilekoei dagokiena baino laburragoa izan dela, ziurtatu gabeko laguntza hilabeteak itzultzeko eskatuko da, laguntza programa bakoitzak xedatutako arauen arabera.

7. Parte hartzeko konpromisoak

Deialdian hautatutako pertsonen konpromiso hauek hartuko dituzte:

7.1. Egonaldiaren aurretik

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da abiatu baino 15 egun lehenago gutxienez:

1. **Dirulaguntzaren hitzarmena:** pc.international@ehu.eus eta movilidad.internacional@ehu.eus helbideetara bidaliko da Nazioarteko Harremanen Bulegoak emandako hitzarmenaren kopia (betea eta sinatua).
2. Bidaia txartelen kopia, ibilbidea, datak eta bidaiaren tarte bakoitzean erabilitako garraiobideak zehaztuta. Helbide hauetara: pc.international@ehu.eus eta movilidad.internacional@ehu.eus
3. **Bisak:** harrera herrialdera abiatu aurretik, bekadunak dagozkion tramiteak egingo ditu hala eskatzen duten herrialdeetan sartzeko eta bertan egoteko behar diren bisak lortze aldera, bai eta herrialde horietan egonaldi bat egiteko behar den beste edozein administrazio tramite ere, behin helmuga unibertsitatean hasita. Nazioarteko Harremanen Bulegoak ez du inolako erantzukizunik izango doktoregaiak tramite horiek ez egiteagatik mugikortasuna galtzen badu.
4. **Aseguru medikoa:** Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartelaz gain, **bidaiako laguntza aseguru** bat kontratatu beharko da atzerriko unibertsitatean joan aurretik. Aseguru horren barruan sartuko da gaixotasunagatiko (COVID-19a barne) edo istripuagatiko asistentzia medikoa eta farmazeutikoa egonaldi osoan, eta, bereziki, aberriratzeko gastuen estaldura mugagabea, heriotza kasurako edo gaixotasun edota istripu larriren bat gertatuz gero jatorri herrialdera itzuli behar izanez gero.

Bidaia asegurua izatea nahitaezkoa da Erasmus+ programan parte hartzeko eta laguntza ekonomikoa jasotzeko. UPV/EHUk [IBILI-EHU](#) asegurua eskaintzen du. Ez da diruz lagunduko asegururik gabe eginiko mugikortasunik, ezta irten aurretik sinatutako Dirulaguntza Hitzarmenik ez duen mugikortasunik ere.

Aseguruaren egiaztagiriaren **kopia** bidali behar da Leioako **Doktorego Eskolara** (international.doke@ehu.eus).

7.2. Egonaldian zehar

Hasierako ziurtagiria: egonaldia hasi eta **HILABETEKO** epean, ikasleak egiaztatu egin beharko du helmuga unibertsitatean lanean hasi dela, unibertsitateak sinatu eta zigilatutako hasierako ziurtagiriaren bidez (**Certificate of Arrival**). Helbide hauetara bidaliko da: pc.international@ehu.eus, movilidad.internacional@ehu.eus eta international.doke@ehu.eus.

7.3. Egonaldia amaitzean

- **Egonaldiaren amaierako ziurtagiria: egonaldia amaitu eta hurrengo hilabetean,** ikasleak nahitaez egiaztatu beharko ditu benetan eginiko egonaldia eta haren iraupena, dagokion ziurtagiriaren bidez (**Certificate of Attendance**). Helmuga unibertsitateak sinatu eta zigilatutako du ziurtagiri hori. Helbide hauetara bidaliko da: movilidad.internacional@ehu.eus eta international.doke@ehu.eus.

- **EU SURVEY galdetgia:** Nazioarteko Harremanen Bulegoak jasotako *Certificate of Attendance*-ren datak aplikazio informatikoan sartu ondoren (Europako Batzordeak programa kudeatzeko erabiltzen duena), tresnak berak jakinarazpen automatikoak igorriko dizkie onuradunei ("ikasle" helbidera), **EU SURVEY / Participant's report galdetgia** bete dezaten.

Ezin da jakin zehazki mezu horiek noiz bidaliko diren. Beraz, adi egon behar da mezua noiz iritsiko, ikasturtea amaitu arte.

Emaila jasoko da "EU-CORPORATE-NOTIFICATION-SYSTEM@ec.europa.eu" helbide elektronikoko kontutik, gaiaren atalean "Erasmus+ participant report" idatzita. Spam karpetara irits daiteke. Mezuak esteka bat ematen du, online txostena eskuratzeko (30 egun naturaleko epean bidali behar da, jasotzen denetik kontatzen hasita).

Txostena ez betetzea programaren ez-betetzat hartuko da, eta berekin ekar dezake jasotako laguntza itzuli behar izatea eta ERASMUS mugikortasunaren aitortza galtzea.

- **Egonaldiari buruzko txostena:** egonaldia amaitu eta hurrengo hilabetean, ikasleak txosten bat bidali beharko du pc.international@ehu.eus helbidera, berak eta helmuga unibertsitateko gainbegiratzaileak sinatuta, 6.3 atalean aipatutako Akordio Akademikoan (*Learning Agreement*) jasotako lan planari dagokionez helmugan eginiko urratsen berri emanez.

8. Dirulaguntza ordaintzea

Laguntza bi zatitan ordainduko da:

1. Lehen ordainketan, Europako laguntzaren % 70 jasoko da.
2. Bigarren ordainketa, laguntzaren gainerako zatia, egonaldia egin ondoren jasoko da, egonaldiaren amaierako ziurtagirian adierazitako daten arabera kalkulatuta.

Bi ordainketen tramiteei ekiteko, deialdiaren 7. atalean aipatutako dokumentuak aurkeztu beharko dira.

9. Ez-betetzeak eta itzulketak

9.1. Betebeharrak justifikaziorik gabe ez betetzeak berekin ekar dezake, kasuen arabera, beka baliogabetzea, ikasketen kontratua bertan behera uztea, finantza hitzarmena deuseztatzea eta, ondorioz, ikasleak dirulaguntza kontzeptu gisa jasotako funtsak itzuli behar izatea, bai eta errektoreordetza honek sustatutako mugikortasun programen etorkizuneko hautapen prozesuetatik kanpo geratzea ere.

Era berean, ikasleak ez baditu betetzen kredituei, hizkuntzari, aseguruari eta abarri dagokion baldintzak atzerriko unibertsitatera iristean, baja emango zaio programan automatikoki.

9.2. Zehazki, dirulaguntzaren kontratuan hitzartutakoa baino egonaldi laburragoa egiten bada, ikasleak jasotako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, aintzat harturik CERTIFICATE OF ATTENDANCEren arabera benetan igarotako egun kopurua.

9.3. Bestetik, errendimendu akademikoko betebeharrak betetzen ez badira, jasotako laguntza osoa itzuli beharko da.

9.4. Nazioarteko Harremanen Bulegoak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eska diezazkieke laguntza lortu duten pertsoneri eta helmuga unibertsitateei, egonaldiak deialdiaren helburuak bete dituela egiaztatzeko.

9.5. Baldin eta laguntzen onuradunak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikulua kasuren batean badaude, edo deialdi honetan edota dirulaguntza emateko erabakian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, dagokion erabakiaren bidez, galdutzat emango du ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea eta, hala badagokio, itzultzeko betebeharra ezarriko du, alde batera utzi gabe bidezkoak diren gainerako egintzak, bat etorritik abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaren bidez arautzen den dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta ezartzen diren haien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Kolaboratzaileen baldintzak, araubidea eta betebeharrak.

Leioan, 2024ko apirilaren 17an

M. Juncal Gutierrez Mangado
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea



Eranskinen zerrenda

- 1. eranskina. Deialdi honetan aukera daitezkeen helmugen zerrenda**
- 2. eranskina. Erasmus+ programari atxiki gabeko herrialdeetan doktoregoko mugikortasun luzeak eskatzeko orria**